| AÑOS DE USO | PORCENTAJES |
|---|---|
| MÁS DE 6 AÑOS, HASTA 7 | 34 |
| MÁS DE 7 AÑOS, HASTA 8 | 28 |
| MÁS DE 8 AÑOS, HASTA 9 | 24 |
| MÁS DE 9 AÑOS, HASTA 10 | 19 |
| MÁS DE 10 AÑOS, HASTA 11 | 17 |
| MÁS DE 11 AÑOS, HASTA 12 | 13 |
| MÁS DE 12 AÑOS | 10 |

Aurreko portzentajeak ezarrita ateratako zenbatekoari % 70 kenduko zaio lehenengo behin betiko matrikulazioa egin zenetik sei hilabete baino gehiagotan kontraprestazio bidezko gidarien ikaskuntzarako edo gidaririk gabeko ibilgailuen alogerarako baino ez bada erabili edota indarrean dagoen legediaren arabera taxi, autotaxi edo autoturismo izaera izan baldin badu.

El importe que resulte de al aplicación de los porcentajes anteriores, se reducirá al 70 por 100 cuando en vehículo transmitido hubiese estado dedicado exclusivamente durante más de seis meses desde la primera matriculación definitiva, a las actividades de enseñanza de conductores mediante contraprestación o de alquiler de vehículos, sin conductor, o bien tuviera la condición, según la legislación vigente, de taxi, autotaxi o autoturismo.

**2.344**

**49/2001 FORU DEKRETUA, apirilaren 3ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, araudi berri eguneratua onartu da enpresaburuek eta profesionalek ordainagiriak egin eta emateko duten betebeharrari buruz.**

Urtarrilaren 7ko 3/1986 Foru Dekretuaren bidez arautu zen enpresaburuek eta profesionalek ordainagiriak egin eta emateko duten betebeharra.

Foru dekretu horri hainbat aldaketa egin zaizkio; hona aipagarrienak: 154/1992 Foru Dekretua, martxoaren 10ekoa; 144/1993 Foru Dekretua, ekainaren 22koa; 70/1994 Foru Dekretua, urriaren 18koa; 47/1995 Foru Dekretua, apirilaren 4koa; 21/1996 Foru Dekretua, otsailaren 20koa; 63/1997 Foru Dekretua, uztailaren 1ekoa; 18/1998 Foru Dekretua, martxoaren 17koa, eta 63/1999 Foru Dekretua, ekainaren 11koa.

Urtarrilaren 7ko 3/1986 Foru Dekretuan hainbeste aldaketa sartu denez, araudiaren testu berri eguneratua taxutzea komeni da.

Bestalde, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Araua onartu ondoren, eta beste arau batzuetan sartutako aldaketak ere kontuan hartuta, hala nola preskripzio epe berria, urtarrilaren 7ko 3/1986 Foru Dekretua lege berriei egokitu behar zaie.

Horretaz Zerga Araudiaren Zerbitzuak egindako txostena ikusi da, bai eta Aholku Batzordeak egindakoa ere.

Ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta Diputatuen Kontseiluan gaur egindako bilkuran aztertu eta gero, hau

XEDATU DUT:

**1. artikulua.- Ordainagiria egin eta emateko betebeharra**

Enpresaburuek eta profesionalek burutzen dituzten eragiketen ordainagiria egin eta emateko betebeharra dute, bai eta horren kopia edo ondoa gordetzekoa ere, foru dekretu honetan ezarriko den moduan, horrela xedatzen baitute uztailaren 29ko 17/1985 Foru Arauak —Zergei buruzko Lege Orokorraren zati bat aldatzeko zen apirilaren 26ko 10/1985 Legea Arabako zerga-araudiari egokitzen du— laugarren xedapen iragankorrean eta urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak —Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudi berria (Araua aurrerantzean) ezartzen du— 164. artikuluaren Bat paragrafoko 3. zenbakian.

**2. artikulua.- Ordainagiria egin eta emateko betebeharra sortzen duten eragiketak**

**1**. Enpresaburuek eta profesionalek burutzen duten eragiketa bakoitzaren ordainagiria egin eta emateko betebeharra dute, bai eta horren kopia edo ondoa gordetzekoa ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez norbere kontsumokotzat jotzen diren kasuak izan arren. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan zuzeneko zenbatespeneko erregimenaz baliatzen diren enpresaburuek eta profesionalek ere izango dute betebehar hori.

**2**. Enpresaburuek eta profesionalek beren jardunetan gauzatutako ondasun entrega eta zerbitzu emate guztiengatik egingo dute ordainagiria, eragiketa hauengatik izan ezik:

a) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek egindakoak, baldin eta baliokidetasun-errekarguko erregimena aplikatzen

**2.344**

**DECRETO FORAL 49/2001, del Consejo de Diputados de 3 de abril, que aprueba un nuevo texto normativo actualizado sobre el deber de expedir y entregar factura por parte de los empresarios y profesionales.**

Mediante el Decreto Foral 3/1986, de 7 de enero, se reguló el deber de expedir y entregar factura por parte de los empresarios y profesionales.

Este Decreto Foral ha sido objeto de diversas modificaciones, entre las que se pueden citar las siguientes: Decreto Foral 154/1992, de 10 de marzo; Decreto Foral 144/1993, de 22 de junio: Decreto Foral 70/1994, de 18 de octubre; Decreto Foral 47/1995, de 4 de abril; Decreto Foral 21/1996, de 20 de febrero; Decreto Foral 63/1997, de 1 de julio; Decreto Foral 18/1998, de 17 de marzo; y el Decreto Foral 63/1999, de 11 de junio.

La cantidad de modificaciones introducidas en el Decreto Foral 3/1986, de 7 de enero, aconsejan la elaboración de un nuevo texto normativo actualizado.

Por otra parte, la aprobación de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y las modificaciones introducidas en otras disposiciones normativas, tales como el nuevo plazo de prescripción, requieren la adaptación del citado Decreto Foral 3/1986, de 7 de enero, a la nueva legislación.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

A propuesta del Diputado Titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada el día de hoy,

DISPONGO:

**Artículo 1.- Obligados a expedir y entregar factura**

Los empresarios o profesionales están obligados a expedir y entregar factura por las operaciones que realicen y a conservar copia o matriz de la misma, de acuerdo con la Disposición Adicional Cuarta de la Norma Foral 17/1985, de 29 de julio, de adaptación a la normativa fiscal alavesa de la Ley 10/1985, de 26 de abril, (de modificación parcial de la Ley General Tributaria) y el número 3º del apartado Uno del artículo 164 del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, por el que se establece la nueva regulación del Impuesto sobre el Valor Añadido (en adelante Norma) en la forma establecida en el presente Decreto Foral.

**Artículo 2.- Operaciones por las que se deben expedir y entregar factura**

**1**. Los empresarios y profesionales están obligados a expedir y entregar factura por cada una de las operaciones que realicen y a conservar copia o matriz de la misma, incluso en los casos calificados como autoconsumo en el Impuesto sobre el Valor Añadido. Este deber incumbe incluso a los empresarios o profesionales acogidos al régimen de estimación objetiva en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

**2**. Deberán ser objeto de facturación la totalidad de las entregas de bienes y prestaciones de servicios, realizadas por los empresarios o profesionales en el desarrollo de su actividad, con excepción de las siguientes operaciones:

a) Las realizadas por sujetos pasivos del Impuesto sobre el Valor Añadido a los que sea de aplicación el régimen de recargo de equivalencia, salvo que dichas actividades tributen en régimen de

bazaie, salbu eta jarduera horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan zuzeneko zenbatespeneko erregimenaren bidez tributatzen badute.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsitako eragiketak, horri buruzko Arauaren 20. artikuluan ezarritakoaren arabera, salbu eta aipatu artikuluaren Bat paragrafoko 2, 3, 4, 5, 15, 20, 21, 22, 24, 25 eta 27. zenbakietan adierazitakoak.

c) Ordainpeko autobideak erabiltzea.

d) Arabako Foru Aldundiak enpresa edo profesio alor jakin batzuentzat edo enpresa jakin batzuentzat baimentzen dituenak, enpresaburu eta profesionalen jarduera ekonomikoen garapenari trabak arintzearren.

e) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek egindako eragiketak zuzeneko zenbatespeneko metodoaz baliatzen diren jardueretan, salbu eta jarduera horiengatik Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen orokorrean tributatzen badute.

f) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek erregimen berezi sinplifikatuan tributatzen duten jardueretan egindako eragiketak, salbu eta jarduera horiengatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zuzeneko zenbatespeneko erregimenean tributatzen badute. Hala ere, zerga horren Arauak 123. artikuluaren Bat paragrafoko bigarren lerrokadako 3. zenbakian aipatzen dituen aktibo finkoen eskualdaketengatik ordainagiria egin beharko da.

**3**. Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, enpresaburuek edo profesionalek ordainagiri osoa egin beharko dute hurrengo eragiketengatik:

a) Eragiketaren jasotzaileak hala eskatzen badu, dagozkion murrizketak eta kenketak egin ahal izateko hura subjektu pasibotzat duten zergen oinarrian zein kuotan.

b) Beste estatu kide batera doazen ondasunen entregak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arauaren 25. artikuluko Bat, Bi eta Hiru paragrafoetan aipatuak.

c) Komunitatetik kanpo bidalitako edo garraiatutako ondasunen entregak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arauaren 21. artikuluko 1 eta 2. zenbakian aipatuak, zergetatik salbuetsitako dendek egindakoak izan ezik.

d) Beste estatu kide batean helbidea duten pertsona juridikoei egindako entregak, haiek enpresaburu edo profesional moduan jarduten ez badute.

e) Jasotzailetzat Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 2. artikuluan aipatutako Herri Admisnistrazioak dituzten eragiketak.

f) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arauaren 91. artikuluaren Bat.2 paragrafoko 15. zenbakian aipatutako obra-egikaritzeak.

g) Inbertsoetarako urrearen entregak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arauaren 140 bis artikuluan xedatutakoaren arabera salbuetsiak.

**4**. Artikulu honetako 1. paragrafoan ezarritakoa gorabehera, ordainagiri bakarrean sartu ahalko dira jasotzaile bakar batentzat gehienez hilabete naturaleko epean egindako eragiketak.

Foru dekretu honen ondorioetarako, eragiketak Balio Erantsiaren gaineko Zerga sortu den egunean egin direla joko da.

**3. artikulua.- Ordainagirien edukia**

**1**. Ordainagiri guztietan eta kopia edo ondoetan, gutxienez, datu hauek jasoko dira:

1. Zenbakia eta, hala badagokio, seriea. Ordainagien zenbakiak hurrenez hurrenekoak izango dira. Hainbat serie zehaztu ahalko dira, fakturazio gune ezberdinak daudenean bereziki.

2. Egilearena zein jasotzailearen izen-abizenak edo sozietatearen izena, eskudun Zerga Administrazioak edo, hala badagokio, Europar Batasuneko beste estatu kide bateko Administrazioak esleitutako Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, eta helbidea. Ez egoiliarren kasuan, establezimendu iraunkorra non dagoen adierazi beharko da.

Jasotzailea enpresa edo profesio jarduerarik burutzen ez duen pertsona fisiko bat bada, nahikoa izango da haren izen-abizenak eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia agertzea.

estimación directa en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

b) Las operaciones exentas del Impuesto sobre el Valor Añadido, en virtud de lo establecido en el artículo 20 de su Norma reguladora, salvo aquéllas a que se refieren los números 2º, 3º, 4º, 5º, 15º, 20º, 21º, 22º, 24º, 25º y 27º del apartado Uno de dicho artículo.

c) La utilización de autopistas de peaje.

d) Las que, con referencia a sectores empresariales o profesionales o empresas determinadas, autorice la Diputación Foral de Álava, con el fin de evitar perturbaciones en el desarrollo de las actividades económicas de los empresarios y profesionales.

e) Las realizadas por sujetos pasivos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas en el ejercicio de actividades que estuvieran en el método de estimación objetiva, salvo que, por dichas actividades tributen en régimen general en el Impuesto sobre el Valor Añadido.

f) Las realizadas por sujetos pasivos del Impuesto sobre el Valor Añadido en el ejercicio de actividades que tributen en el régimen especial simplificado, salvo que, por dichas actividades, tributen en el método de estimación directa en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. No obstante, deberá expedirse factura por las transmisiones de los activos fijos a que se refiere el artículo 123, apartado Uno, párrafo segundo, número 3º, de la Norma reguladora del mencionado Impuesto.

**3**. No obstante, lo dispuesto en el apartado anterior, los empresarios o profesionales estarán obligados a expedir, en todo caso, una factura completa por las siguientes operaciones:

a) Aquéllas en las que el destinatario de la operación así lo exija para poder practicar las correspondientes minoraciones o deducciones en la base y en la cuota de aquellos tributos de los que sea sujeto pasivo.

b) Las entregas de bienes destinados a otro Estado miembro comprendidas en el artículo 25, apartados Uno, Dos y Tres, de la Norma del Impuesto sobre el Valor Añadido.

c) Las entregas de bienes expedidos o transportados fuera de la Comunidad a que se refiere el artículo 21, números 1º y 2º, de la Norma del Impuesto sobre el Valor Añadido, excepto las realizadas por las tiendas libres de Impuestos.

d) Las entregas de bienes a personas jurídicas domiciliadas en otro Estado miembro que no actúen como empresarios o profesionales.

e) Aquéllas cuyos destinatarios sean las Administraciones Públicas a que se refiere el artículo 2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

f) Las ejecuciones de obra a las que se refiere el artículo 91, apartado Uno.2, número 15.º de la Norma del Impuesto sobre el Valor Añadido.

g) Las entregas de oro de inversión exentas en virtud de lo dispuesto en el artículo 140 bis de la Norma del Impuesto sobre el Valor Añadido.

**4**. No obstante, lo dispuesto en el apartado 1 de este artículo, podrán incluirse en una sola factura las operaciones realizadas para un mismo destinatario en el plazo máximo de un mes natural.

A efectos de este Decreto Foral, las operaciones se entenderán realizadas en la fecha en que se haya producido el devengo del Impuesto sobre el Valor Añadido para las mismas.

**Artículo 3.- Contenido de las facturas**

**1**. Toda factura y sus copias o matrices contendrán, al menos, los siguientes datos o requisitos:

1º Número y, en su caso, serie. La numeración de las facturas será correlativa. Podrán establecerse series diferentes, especialmente cuando existan diversos centros de facturación.

2º Nombre y apellidos o denominación social, Número de Identificación Fiscal atribuido por la Administración Tributaria competente o, en su caso, por la de otro Estado miembro de la Comunidad Europea y domicilio, tanto del expedidor como del destinatario. Cuando se trate de no residentes, deberá indicarse la localización del establecimiento permanente.

Cuando el destinatario sea una persona física que no desarrolle actividades empresariales o profesionales bastará que, respecto a ella, consten su nombre y apellidos y su Número de Identificación Fiscal.

3. Eragiketaren eta kontraprestazio osoaren deskripzioa. Eragiketa Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuta badago, eta salbuetsita ez badago, zerga oinarria, zerga tasa eta jasanarazitako kuota zehazteko behar diren datu guztiak jaso beharko dira ordainagirian. Kuota prezioari jasanarazten bazaio, ezarritako zerga-tasa baizik ez da adieraziko, edo "BEZ barne" hitzak jarriko dira, horretarako baimena izanez gero. Ordainagarian sartutako ondasun entregak edo zerbitzuak bestelako zerga-tasa batzuetakoak badira, eragiketaren zati bakoitzari zein tasa dagokion zehaztu beharko da.

4. Emateko lekua eta eguna.

**2**. Eragiketa egin aurreko ordainketengatik egin eta eman beharko da ordainagiria eta bertan hori adierazi.

**3**. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arauak 5. artikuluaren Bat paragrafoko e) letran aipatutako pertsonek garraiobide berriak entregatzen badituzte, 1 paragrafoan ezarritako datu eta betebeharrez gain, subjektu pasiboek beste hauek eman beharko dituzte: garraiobidearen ezaugarriak, lehenengo aldiz martxan jarri zen eguna eta entregatu arte egindako distantziak edo nabigazio orduak, aipatu Zergaren Arauaren 13. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoari jarraituz.

**4**. Ondasun erabiliak, arte objektuak eta antzinako edo bildumako objektuak entregatzen direnean, Balio Erantsiaren gaineko Zergan horrela deritzon erregimen bereziari lotuta badaude, ordainagirian adierazi beharko da hori.

**5**. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegiaren 79. artikuluaren 2. paragrafoan aipatutako komunitate barneko eskuraketen ondorioz entregak egiten dituzten enpresaburu edo profesionalek berariaz adierazi beharko dute entrega horien ordainagirietan Zergaren Arauaren 26. artikuluaren Hiru paragrafoan jasotako eragiketa triangeluarretako bat dela; halaber, datu hauek eman beharko dituzte bertan: Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako komunitate barneko eskuraketak eta ondoriozko entregak egiteko erabiltzen duten identifikazio zenbakia eta zergaren ondorioetarako entregaren jasotzaileak emandako identifikazio zenbakia.

**4. artikulua.- Fakturazio kasu bereziak**

**1**. Eragiketen jasotzaileak ez badira beren jarduna garatzen ari diren enpresaburu edo profesionalak, ez da beharrezko izango ordainagirian jasotzailea identifikatzeko datuak jartzea, eragiketaren kontraprestazioa 15.000 pezetatik gorakoa ez denean (90,15 euro) edo Arabako Foru Aldundiak baimentzen dituen gainerako kasuetan.

**2**. Jarraian adierazten diren eragiketetan, zenbatekoa 500.000 pezetatik gorakoa ez bada (3.005,06 euro), ordainagirien ordez txartel zenbakiduneko taloitegiak erabili ahalko dira edo, horrelakorik ezean, makina erregistratzaileek emandako tiketak:

a) Xehekako salmentak, entregatutako produktuak ekoitzi edo landu dutenek egindakoak badira ere.

Ondorio horietarako, xehekako salmentatzat joko da gauzazko edo aziendazko ondasun higigarriak entregatzea, eragiketaren jasotzaileak ez badu jarduten enpresaburu edo profesional gisa, ondasunen azken kontsumitzaile gisa baizik. Duten izaera dela eta batez ere industrian erabiltzekoak diren ondasunen salmentak ez dira xehekakotzat joko.

b) Salmenta edo zerbitzu ibiltariak.

c) Kontsumitzailearen etxean egindako salmenta edo zerbitzuak.

d) Pertsonak eta haien ekipajeak garraiatzea.

e) Hostalaritza eta sukaldaritzako zerbitzuak, jatetxe, taberna, kafetegi, hortxatategi, txokolategi eta antzeko establezimenduek emandakoak.

f) Aipatutako establezimenduetan unean bertan kontsumitzeko edari edo janariak zerbitzatzea.

g) Dantzaleku eta diskotekak.

h) Telefonia zerbitzuak, erabilera publikoko telefono kabinen bidezkoa edo eramailea nor den jakiteko aukera ematen ez duten txartel magnetiko edo elektroniko berriz kargatzekoen bidez.

i) Ileapaindegi eta apaindegietako zerbitzuak.

j) Kirol instalazioak erabiltzea.

k) Argazkiak errebelatzea eta argazkilaritza estudioak.

3º Descripción de la operación y su contraprestación total. Cuando la operación esté sujeta y no exenta en el Impuesto sobre el Valor Añadido, deberán consignarse en la factura todos los datos necesarios para la determinación de la base imponible, así como el tipo tributario y la cuota repercutida. Cuando la cuota se repercuta dentro del precio, se indicará únicamente el tipo tributario aplicado, o bien la expresión "IVA incluido", si así está autorizado. Si la factura comprende entregas de bienes o servicios sujetos a tipos impositivos diferentes en este Impuesto, deberá diferenciarse la parte de la operación sujeta a cada tipo.

4º Lugar y fecha de su emisión.

**2**. Se deberá expedir y entregar factura por los pagos anteriores a la realización de la operación. En la correspondiente factura se hará indicación expresa de esta circunstancia.

**3**. En las entregas de medios de transporte nuevos efectuadas por las personas a que se refiere el artículo 5, apartado Uno, letra e), de la Norma del Impuesto sobre el Valor Añadido, el sujeto pasivo deberá hacer constar en la factura, además de los datos y requisitos establecidos en el apartado 1 anterior, las características de los medios de transporte, la fecha de su primera puesta en servicio y las distancias recorridas u horas de navegación realizadas hasta su entrega, de acuerdo con lo establecido en el artículo 13, número 2º de la Norma del Impuesto mencionado.

**4**. En las entregas de bienes usados, objetos de arte, antigüedades y objetos de colección sujetas al régimen especial de esta denominación en el Impuesto sobre el Valor Añadido, en la factura deberá hacerse constar esta circunstancia.

**5**. Los empresarios o profesionales que realicen las entregas subsiguientes a las adquisiciones intracomunitarias a que se refiere el artículo 79, apartado 2, del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, deberán indicar expresamente en las facturas correspondientes a dichas entregas que se trata de una operación triangular de las contempladas en el artículo 26, apartado Tres, de la Norma de dicho Impuesto y consignar en ellas el número de identificación a efectos del Impuesto sobre el Valor Añadido con el que realizan las referidas adquisiciones intracomunitarias y entregas subsiguientes, así como el número de identificación a efectos del mencionado Impuesto suministrado por el destinatario de la entrega subsiguiente.

**Artículo 4.- Supuestos especiales de facturación**

**1**. Tratándose de operaciones realizadas para quienes no tengan la condición de empresarios o profesionales actuando en el desarrollo de la actividad, no será obligatorio la consignación en la factura de los datos de identificación del destinatario si se trata de operaciones cuya contraprestación no sea superior a 15.000 pesetas (90,15 euros) y en los demás casos que autorice la Diputación Foral de Álava.

**2**. En las operaciones que a continuación se describen, cuando su importe no exceda de 500.000 pesetas (3.005,06 euros), las facturas podrán ser sustituidas por talonarios de vales numerados o, en su defecto "tickets" expedidos por máquinas registradoras:

a) Ventas al por menor, incluso las realizadas por fabricantes o elaboradores de los productos entregados.

A estos efectos, tendrán la consideración de ventas al por menor las entregas de bienes muebles corporales o semovientes cuando el destinatario de la operación no actúe como empresario o profesional, sino como consumidor final de aquéllos. No se reputarán ventas al por menor las que tengan por objeto bienes que por su naturaleza sean principalmente de utilización industrial.

b) Ventas o servicios en ambulancia.

c) Ventas o servicios a domicilio del consumidor.

d) Transportes de personas y sus equipajes.

e) Servicios de hostelería y restauración prestados por restaurantes, bares, cafeterías, horchaterías, chocolaterías y establecimientos similares.

f) Suministro de bebidas o comidas para consumir en el acto, prestados por los establecimientos antes citados.

g) Salas de baile y discotecas.

h) Servicios telefónicos prestados mediante la utilización de cabinas telefónicas de uso público, así como mediante tarjetas magnéticas o electrónicas recargables que no permitan la identificación del portador.

i) Servicios de peluquerías e institutos de belleza.

j) Utilización de instalaciones deportivas.

k) Revelado de fotografías y estudios fotográficos.

l) Ibilgailuak aparkatzeko zerbitzuak.

m) Bideo klubeko zerbitzuak.

n) Arabako Foru Aldundiak baimentzen dituenak.

3. Taloitegiko aldean eta txartelen ondoan gutxienez datu hauek jasoko dira:

a) Zenbakia eta, hala badagokio, seriea. Zenbakiak hurrenez hurrenekoak izango dira.

b) Emailearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia.

c) Ezarritako zerga-tasa edo “BEZ barne” hitzak.

d) Guztirako kontraprestazioa.

4. Txartel taloitegien ordez tiketak erabil daitezke, 3. paragrafoan adierazitako datuak jasotzen dituzten salmenta kutxa erregistratzaileek emanak; kasu horretan eragiketak jasotzen dituzten erroiluak nahitaez gorde beharko dira.

**5. artikulua.- Egiteko modua**

**1**. Ordainagiri edo horien ordezko agiri bakoitzeko original bakarra egin ahalko dute enpresaburu eta profesionalek.

**2**. Hala ere, ordainagiri edo horien ordezko agirien originalen kopiak egin ahalko dira kasu hauetan:

a) Eragiketa bakar batean jasotzaile bat baino gehiago badago.

b) Originala edozein arrazoirengatik galtzen bada.

Ale kopiatuetan “kopia” hitza jarri beharko da, eta emateko arrazoai adierazi.

**3**. Aurreko 2. paragrafoan aipatutako kopiek dagozkien agiri originalek besteko eraginkortasuna izango dute.

**4**. Emaileak bere izaera adierazi beharko du ordainagirien kopia guztietan.

**6. artikulua.- Egiteko unea**

Ordainagiriak edo horien ordezkoak eragiketa burutzen den unean bertan egin beharko dira. Jasotzailea enpresaburu edo profesionala bada, aldiz, hogeita hamar eguneko epean eragiketa eginez geroztik edo foru dekretu honetako 2. artikuluko 4. paragrafoan aipatutako epealdiaren azken egunaz geroztik, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arauaren 166.2 artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe. Eragiketak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arauaren 75. artikuluan zerga hori sorrarazteko ezartzen diren irizpideen arabera egin direla joko da.

Edonola ere, komunitate barneko eragiketei dagozkien ordainagiriak edo agiri baliokideak egiteko, eragiketak zein likidazioalditan sorrarazi diren hartuko da kontuan, hura amaitu osteko hurrengo hilaren 16a baino lehen egin beharko baitira, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arauaren 76. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ordainagiriak edo agiri baliokideak egiten diren unean bertan bidali beharko zaizkio jasotzaileei, edo ondorengo hogeita hamar eguneko epean jasotzailea enpresaburu edo profesionala bada.

**7. artikulua. Gordetzeko betebeharra**

Enpresaburu eta profesionalek berek edo beren izenean egindako ordainagiriak edo horien ordezko agiriak gordetzeko beharra izango dute, harik eta Administrazioak eragiketa jakinekin lotutako zerga zorrak zehazteko duen eskubideak preskribitzen duen arte.

Aurreko lerrokadan aipatutako obligazioaren ordez, agirien datu guztiak jasotzen dituzten mikrofilmak edo euskarri magnetikoak erabil daitezke.

**8. artikulua.- Eragiketak justifikatzeko agiriak**

**1**. Enpresaburu edoprofesionalek egindako eragiketetan sortuak badira, bai sarrerak lortzeko beharrezko gastuak bai egindako kenketak ordainagiri osoaren bidez justifikatu beharko dira, zerga oinarriak edo kuotak zehaztu ahal izateko. Dagokion eragiketa gauzatu duen enpresaburu edo profesionalak emango du ordainagiri hori.

Foru dekretu honetan aurreikusitako ondorioetarako, ordainagiri osoa izango da 3. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako datu eta betebehar guztiak betetzen dituena. Eragiketen jasotzaileek enpresaburu edo profesionalei ordainagiri osoa egin eta eman diezaieten eskatzeko eskubidea dute, hura Zuzenbidearen arabera egin behar den kasuetan.

l) Servicios de aparcamiento y estacionamiento de vehículos.

m) Servicios de video club.

n) Las que autorice la Diputación Foral de Álava.

**3**. En la parte talonaria y en la matriz de los vales se harán constar, al menos, los siguientes datos o requisitos:

a) Número y, en su caso, serie. La numeración será correlativa.

b) Número de Identificación Fiscal del expedidor.

c) Tipo impositivo aplicado o la expresión “IVA incluido”.

d) Contraprestación total.

**4**. Los talonarios de vales podrán ser sustituidos por “tickets” expedidos por cajas registradoras de ventas en las que consten los datos expresados en el apartado 3 anterior, siendo obligatorio en tales casos conservar los rollos en que se anoten tales operaciones.

**Artículo 5.- Modo de expedición**

**1**. Los empresarios y profesionales sólo podrán expedir un original de cada factura o documento sustitutivo.

**2**. No obstante, será admisible la expedición de ejemplares duplicados de los originales de las facturas o documentos sustitutivos en los siguientes casos:

a) Cuando en una misma operación concurriesen varios destinatarios.

b) En los supuestos de pérdida del original por cualquier causa.

En cada uno de los ejemplares duplicados deberá hacerse constar la expresión “Duplicado” y la razón de su expedición.

**3**. Los ejemplares duplicados a que se refiere el apartado 2 anterior tendrán la misma eficacia que los correspondientes documentos originales.

**4**. En todas las copias de las facturas el expedidor hará constar expresamente su carácter de tal.

**Artículo 6.- Momento de expedición**

Las facturas o documentos sustitutivos deberán ser emitidos en el mismo momento de realizarse la operación o bien, cuando el destinatario sea empresario o profesional, dentro del plazo de treinta días a partir de dicho momento o del último día del período a que se refiere el apartado 4 del artículo 2 de este Decreto Foral, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 166.2 de la Norma del Impuesto sobre el Valor Añadido. Las operaciones se entenderán realizadas según los criterios establecidos en el artículo 75 de la Norma del Impuesto sobre el Valor Añadido para el devengo de dicho Impuesto.

En todo caso, las facturas o documentos equivalentes correspondientes a operaciones intracomunitarias deberán emitirse antes del día 16 del mes siguiente a aquél en que termine el período de liquidación en que se hayan devengado las operaciones, según lo dispuesto en el artículo 76 de la Norma del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Toda factura o documento equivalente deberá ser remitido a su destinatario en el mismo momento de su expedición, o bien, cuando el destinatario sea empresario o profesional, dentro de los treinta días siguientes.

**Artículo 7.- Obligación de conservación**

Los empresarios y profesionales están obligados a conservar las copias de las facturas o documentos que las sustituyan, expedidas por ellos o por su cuenta durante el período de prescripción del derecho de la Administración para determinar las deudas tributarias afectadas por las operaciones correspondientes.

La obligación a que se refiere el párrafo anterior podrá sustituirse por la utilización de películas microfilmadas o soportes magnéticos que contengan todos los datos de dichos documentos.

**Artículo 8.- Documentos justificativos de las operaciones**

**1**. Para la determinación de las bases o de las cuotas tributarias, tanto los gastos necesarios para la obtención de los ingresos como las deducciones practicadas, cuando estén originados por operaciones realizadas por empresarios o profesionales, deberán justificarse mediante factura completa, entregada por el empresario o profesional que haya realizado la correspondiente operación.

A los efectos previstos en este Decreto Foral se entiende por factura completa la que reúna todos los datos y requisitos a que se refiere el apartado 1 del artículo 3. Los destinatarios de las operaciones tendrán derecho a exigir de los empresarios o profesionales la expedición y entrega de la correspondiente factura completa en los casos en que ésta deba emitirse con arreglo a Derecho.

**2**. Egotzitako gastuak edo egindako kenketak enpresaburu edo profesional ez den norbaitek egindako entrega edo zerbitzu independente baten ondorio badira, eragiketaren jasotzaileak honela justifikatu beharko ditu gastuak eta kenketak:

a) Eragiketaren jasotzailea enpresaburu edo profesionala ez bada, Zuzenbidean onartutako frogabideez, datu hauek jasoz gero: aldeen nortasuna eta helbidea, eragiketaren izaera, prezioa eta ordaintzeko baldintzak, eta eragiketa egin den lekua eta eguna.

b) Jasotzailea enpresaburu edo profesionala bada, agiri publiko edo pribatu bidez ondasun higiezinak erosiz gero, edo hark berariaz egindako ordainagiri baten bidez gainerako kasuetan. Ondasuna eskualdatu edo zerbitzua ematen duenak sinatu beharko du ordainagiria eta bertan foru dekretu honetako 3. artikuluko lehen paragrafoan adierazitako datuak jasoko dira ordaindutako kontraprestazioari dagokionez. Eragiketari ondasun erabilien, arte objektuen eta antzinako edo bildumako objektuen erregimen berezia ezarri behar bazaio, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arauetan horretaz ezarritakoari lotuko zaio erosketaren ordainagiria.

**3**. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezira bildutako enpresaburuei egindako erosketak badira, haiek ekarritako gastuak edo dagozkion kenketak justifikatzeko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudian eskatutako ordainagiria beharko da, eragiketaren jasotzaileak egin beharrekoa. Espainian egoitzarik ez duten pertsona edo entitateek egindako erosketen kasuan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren likidazioa jasotzen duen agiriak balioko du justifikatzeko. Agiri horiek egitea beharrezko ez denean, aurreko paragrafoan ezarritako moduan justifikatuko da erosketa.

**4**. Egotzitako gastuak edo egindako kenketak justifikatzeko ordainagiriak gorde beharko dira, harik eta Administrazioak eragiketa jakinekin lotutako zerga zorrak zehazteko duen eskubideak preskribitzen duen arte.

**5**. Balore higigarrien erosketa justifikatzeko parte hartzen duen fede-emaileak egindako agiri publikoa edo eragiketaren banku justifikantea erabil daitezke. Errendimendu inplizitua duten finantza aktiboen erosketa justifikatzeko, berriz, maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretuak —Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Arauaren erregelamenduzko garapena egiten du— 53. artikuluan eta urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuak —kapital errentetan eta ondarezko irabaki jakin batzuetan atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuta dauden pertsona eta entitateek ezarri beharreko araudia onartzen du— 10. artikuluan.

**6**. Banku edo kreditu entitateek gauzatutako eragiketak direla eta sortutako gastuak eta kenketak justifikatzeko entitateak egindako enkargu agiri, laburpen edo oharra erabili ahalko da; bertan ordainagiri bati dagozkion datuak agertuko dira, zenbakia eta seriea izan ezik.

**7**. Foru Aldundiak baimena eman ahalko du enpresaburu edo profesional edo ekonomia alor jakin batzuek, dituzten ezaugarri bereziak direla eta, ordainagiri osoa beste agiri baliokide batez ordezka dezaten artikulu honetako ondorioetarako.

Agiri horrek bete behar dituen baldintzak dagokion ebazpenaren bidez zehaztuko dira.

Kasu horretan, zerga oinarriak edo kuotak zehazteko, dagozkien eragiketen jasotzaileek aipatutako agiri baliokidea egin eta eman diezaieten eskatu ahalko dute bakarrik.

**9. artikulua.- Balio Erantsiaren gaineko Zergaren fakturazioa**

**1**. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arauaren 84. artikuluko Bat paragrafoko 2. zenbakian eta 85 eta 140 quinque artikuluetan aipatzen diren Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek ordainagiriaren baliokide den agiri bat egin beharko dute; bertan zergaren likidazioa eta foru dekretu honetako 3. artikuluan ezarritako datuak jasoko dira eta eragiketa bakoitzaren kontabilitateko justifikanteari erantsiko zaio. Agiri horrek ordainagiriak dituen ondorio berberak izango ditu kenketa eskubideaz baliatzeko.

Dena dela, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arauaren 85. artikuluan aipatzen diren subjektuek agiri baliokide bakarra egin ahalko dute, 6. artikuluko bigarren lerrokadan ezarritako epean. Agiri horretan gehienez hilabete naturaleko epean hornitzaile bakar batekin egindako eragiketak jaso beharko dira, eta zehaztu zein zerga-oina-

**2**. Cuando los gastos imputados o las deducciones practicadas sean consecuencia de una entrega o servicio independiente realizado por quien no sea empresario o profesional, el destinatario de la operación deberá justificar aquéllos del siguiente modo:

a) Si el destinatario de la operación no es empresario ni profesional, mediante los medios de prueba admitidos en Derecho, siempre que consten la identidad y el domicilio de las partes, la naturaleza de la operación, el precio y condiciones para su pago y el lugar y la fecha de su realización.

b) Si el destinatario es empresario o profesional, mediante documento público o privado, si se trata de la adquisición de bienes inmuebles, y mediante una factura extendida por aquél al efecto en los demás casos. Esta factura deberá ir firmada por el transmitente o prestador del bien o servicio y contendrá los datos a que se refiere el apartado primero del artículo 3 de este Decreto Foral, aludiendo a la contraprestación satisfecha. Cuando la operación quede afectada por el régimen especial de bienes usados, objetos de arte, antigüedades y objetos de colección, la factura de compra se ajustará, en su caso, a lo que disponga la normativa relativa al Impuesto sobre el Valor Añadido.

**3**. Tratándose de adquisiciones efectuadas a empresarios acogidos al régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca, los gastos que aquéllas supongan o las deducciones que procedan, habrán de justificarse mediante el recibo exigido por la normativa del Impuesto sobre el Valor Añadido a emitir por el destinatario de la operación. En el caso de las adquisiciones por personas o entidades no establecidas en el Estado español, servirá de justificante el documento que contenga, en su caso, la liquidación del Impuesto sobre el Valor Añadido. Cuando no proceda la expedición de los citados documentos deberá justificarse la adquisición, en su caso, en los términos establecidos en el apartado anterior.

**4**. Las facturas justificativas de los gastos imputados o las deducciones practicadas, deberán conservarse durante el plazo de prescripción del derecho de la Administración para determinar las deudas tributarias afectadas por la operación correspondiente.

